

NOLATAN EZ DITUZTE ERAKUNDEEK EUSKARAZKO LEHEN GRABAZIOAK GORDE ETA PLAZARATU?

Maiden IANTZI GOIENETXE

Euskarazko lehendabiziko grabazioak 1900. urtekoak dira, Parisen egin ziren. Espioitza eta geopolitikarekin lotutako istorioak dituzte giblean, inork gutxi dakizkienak. Xabier Erkiziak kontatu dizkigu, baita aditu ezin diren grabazio horiek, modu piratan lortu dituenak, paratu ere. Entzun nahi?

Izena jasotzen duenean, hots orok zarata iza-teari uzten diola irakurri zion Michel Serres pentsalariari. Hortik hartu zuen Xabier Erkiziak “Zaratak ez du izenik” bere erakusketa-rako izenburua. Ekitaldiaren bukaera baliatu du artistak duela 123 urteko lehen euskarazko grabazioak plazaratzeko, erakunde publiko batek ere gorde eta argitaratu ez dituenak.

Belarrientzako zine bat muntatu du Berako Labiaga Ikastolan, azken 20 urteetan egindako hainbat entzunaldirekin. Zaratei eskainitako bizi puskak dira. Gure ahanztura zenbait seinaltatzeko saiakerak. Nor garen eta nondik aditzen dugun ulertzeko erak.

Aldarrikatzen duenez, aditzeko beharrak irauten du, oraindik «belarriberak» gara. Timorreko erranera zahar batek dioen bezala, «gizakiok, bizirik gaudenean, historia egiten dugu, baina hiltzerakoan lu-rrak belarriak tapatzen dizkigu».

Zarata, entzuteko aukera gisa hartzen du Erkiziak eta euskarazko aurreneko grabazioak aditzean ere hori iristen zaio berari: zarata.

Hilabete batzuez egon da Beran iker-tzailearen “atzeraditzekoa”, eta justu Euskararen Egunean itxi du, abenduaren 3an. Jende aunitz bildu da ikastola-ko areto nagusian, tartean guraso eta haurrak. Fonografo batekin agertu da lesakarra, euskarazko lehen grabazioak egin zirenean, 1900. urtean, nola grabatzen zen erakusteko. Biraderarekin funtzionatzen zuen, eta zilindroa argi-zariarekin egiten zen. Garbitu gabeko zarata bat dute, komunikatzaileari in-teresatzen zaiona.

NON DAUDE?

Soinua ez da objektu bat, hori du bere-zia. Baina gai da barnean sartu eta ez ateratzeko, zauri bat bezala. Egun osoan bueltaka izaten ditugun kantue-kin gertatzen zaigu, adibidez.

Non daude euskarazko lehen graba-zioak? «Koldo Mitxelena Kulturuneak badu kopia bat, baina ezin du publikoki erakutsi. Gaur adituko duguna guztiz pirata da», abisatu du Erkiziak.

Oroitu duenez, 1900. urtean mundua obsesionaturik zegoen bertze herriak



Xabier Erkiziak «Zaratak ez du izenik» erakusketaren itxiera baliatu zuen, Euskararen Egunean euskarazko lehen grabazioak zabaltzeko. Asier GOGORTZA

ezagutzearekin. Lehenengo kamerak eta filmak sortu ziren. Leon Azule izeneko herritar batek zarataren aldeko testu bat idatzi zuen, aldarrikatuz mundua ezagutzeko zarata falta zela. Munduko soinu-nuen museoa sortzen saiatu zen, eta bertze hizkuntzen artean euskarazko hotsak ere grabatu zituen, Parisen.

Azule nor den ez daki oraindik soinu artistak, nahiz eta, telefono-aurkibidea eskuan, abizen hori zutenei deika ibili zen, bertze aldekoak nazkatu arte. Bada-ki gaztelaniazko lehen grabazioa baino zaharragoa dela euskarazkoa.

Orain jarriko ditu Erkiziak, a ze emozioa! Irrintzi bat da euskarazko lehen grabazioa. Ez da irrintzirik onena, egia erran. Kantu batzuk ere badira, “Donostiako hiru damatxo” eta “Zezenak dira”.

«GRABAZIOEN BILA GATOZ»

1914an, Euskal Herrian egin zen euskarazko lehen grabazioa. Lehen Mundu Gerran, lehen mundutik etorri ziren soinuak grabatzera. Grabatu behar zutena idi gurdia zela erran zieten bertakoek eta han ibili ziren makurtuta.

Istorio bitxi bat kontatu du artistak, bene-benetakoa baina ezezaguna. 1999an itzuli ziren 1914ko soinu horiek Euskal Herrira. Austriako enbaxadoreak grabazioen kopia bat eman zion Jaur-laritzari eta prentsa oharra ere idatzi zuen ardura hori zuen Inaxio Lopez de Aranak, austriarren testua itzuliz. Bertan agertzen zen bazekitela grabazio zaharragoak ere bazirela, 1900ekoak.

Lopez de Aranak, jakin-mina zuenez, gutunak asmatu zituen lehendakariaren izenean, eta trajea eta maletatxoa hartuta Parisera joan zen. «Grabazioen bila gatoz», erran zuen irmo, eta kasete batean kopia bat eman zioten. «Aditu zuen eta saiatu zen erakunde publiko bati ematen; inork ez zuen nahi, ordea. Eusko Ikaskuntzak erosi zion, baina bel-durrez: “Ez erran inori”. CD-ROM gisa aurkeztu zuten, baina etorri bezala galdu zen, gutxi iraun zuen CD-ROMak. Durangoko Azokan ale batzuk jarri zi-

Non daude euskarazko lehen grabazioak? «Koldo Mitxelena Kulturuneak badu kopia bat, baina ezin du publikoki erakutsi. Gaur adituko duguna guztiz pirata da», abisatu du Erkiziak hitzaldiaren hasieran

1914an, Euskal Herrian egin zen euskarazko lehen grabazioa, Lehen Mundu Gerraren garaian etorri ziren. Grabatu behar zutena idi gurdia zela erran zieten bertakoek, eta han ibili ziren makurtuta

tuzten, baina garrantzia kenduz bezala. Sobera inportanteak ziren ez erakusteko. Sobera inportanteak ziren erakusteko». «Inaxiori esker, euskarazko lehen grabazioak aditzen ahal ditugu orain ilegalki».

Lehen Mundu Gerran desagertu egin ziren 1914ko grabazioak, eta gerra bukatzean Viena eta Berlinen artean banatuta agertu ziren. «Badakigu existitzen direla alemanek gal-detu zutelako “baina zer demontre da hau?”. Gaur egun, kontsulta daitezke, baina ez kopia lortu».

1916 eta 1917 artean bi antropologok eta musikologo ba-

tek grabatu zituzten euskarazko hotsak, arraza garbi baten froga gisa-edo, gerran preso gelditu zirenen, nagusiki Ipar Euskal Herriko soldaduen, ahotsak jasoz. «Interneten daude, baina pribatuan».

NEGOZIOA HASI DA

Hala bukatu zen lehen grabazioen aroa, eta gramofonoa eta diskoetxeak sortu ziren 1920ko hamarkadan. «Negozio bat zegoela konturatu ziren, jendeak musika aditu nahi zuen dantzatzeko. Orduan, bertze makina bat sortu zuten aditzeko bakarrik, diskoa. Eta musika eta bertsolariak grabatzen hasi ziren. Kalitatea aldatu zen, jada ez zuten makurtuta egiten fonografoarekin bezala. Donostiako Antiguan egon zen industria diskografikoa. Itxi zuten eta ez da bertzerik egon Euskal Herrian».

Produktore bat zegoen, saltzeko helburua zutelako eta erakargarri egin nahi zutelako. Aurrekoetan dokumentatzea zen xedea. Horregatik, «mapekin gertatzen den bezala, interesgarriena aditzen ez dena da, grabatu ez zena».

KOMUNISTA BAT, CIA ATZETIK DUELA

1951n, Alan Lomax amerikarrak bidaia hasi zuen Europan barrena soinuak grabatzeko, eta Euskal Herrira etorri zen. Lo-



max komunista zen eta atzetik zuen CIA. Hortaz, erdi gordeka eta ihesean grabatu zituen hots guztiak.

«Lomax hil zenean bi disko atera zituzten. Inportazioz ekar daitezke. Ez da kasualitatea denak testuinguruan jarri eta plazaratu izana, Euskal Herrikoak eta Kataluniakoak izan ezik. 1900. urte-tik hasita etengabe arazoak izan dira euskarazko grabazioak aditzeko», dio.

Ezin du ulertu «nolatan ez duten hartu erakunde publikoek ardurarik, ez bakarrik grabazioak gordetzeko, baizik eta plazaratzeko. Zarata hauetako bakoitzaren giblean bada istorio bat, eta ez da alferrekoa».

ZARATA, BERTZEENA BETI

Zarata, bertzeena da beti. Motor hotsa zarata da, baina zu bazoaz motorrean? Soinua grabatzea zarata ikertzea da le-sakarrarentzat, bertzearen tokian jar-tzea. «Musikariak soinu berriak sortu eta ematen dizkio jendeari. Zarataren kasuan, bertzea aditu behar da. Erronka handiena belarriko mintz fin hori da, zu eta bertzeak banatzen ditu».

Zergatik ez du inork ahaleginik egin euskarazko grabazio zaharrak zabaltze-ko? «Ez direlako politak». Ikusi nahi du-guna begiratzen hasten bagara, aditzea-ri uzten diogu. Zarata deitzen diogun historia puska hori alde batera uzten dugu, nahiz eta gurea izan.

«Aditzen dugun musikaren %90 nahi gabe aditzen dugu, eta horrek badu on-dorio bat: nola dakit kanta hau? Nahi gabe eramaten gaitu musika mota bat edo grabatzeko modu bat gustatzera. Eta zaraten espazio arraro hori zaila da kokatzen. Bukaerarik ez duen ikerketa bat da», egin du gogoeta.

IDI GURDIA, ZAURIRIK HANDIENA

Xabier Erkiziari zauririk handiena eragin dion soinua idi gurdiarena da, nahiz eta ez zuen aditua ere. Hamar urtez ibili da hots horren gibeletik, eta Brasilgo Trini-dadera iritsi zen. Bertan 600 gurdi sar-tzen dira jaialdi batean, harro gainera. Asfaltoa altxatu egiten denez, urtero he-rri guztia asfaltatzen dute.


Asfaltoa harrotzen zuelako eta zarata handia sortzen zuelako debekatu egin



zituzten idi gurdiak Bilbon, 1834an. 50 urte geroago, egunkari batean azaltzen da baserritar bat Udalera joan zela erra-nez isuna ordaindu nahi zuela eginen zuen zaratagatik. Hala lortu zuen, erro-mantiko eta aldarrikatzaile, hirian ba-rrena gurdiarekin paseatzea.

Ikertzaileak azaldu duenez, 5.000 urte ditu idi gurdiak. Historiako soinurik zaharrena da oraindik bizirik dagoena. «Baserritarrentzat idi gurdia da beren soinua. Afinatuak daude eta bata ber-tzeari erranez aritzen ziren ‘nirea afina-tuago dago’. Musika bat bazen Pitagora-sen aitzinekoa. Bertze antolaketa sozial bat ere irakur daiteke orain dela gutti arte aditu den soinu horretan».

2024ko egutegi bat egin du artistak idi gurdien soinuaren bila bizitako abentu-rekin, baina kilometro asko egin arren, bere galderak erantzunik gabe jarrai-tzen du: nolatan ez dituzte erakundeek euskarazko lehen grabazioak gorde eta plazaratu?



Idi-gurdia, gerrako biktimen tresnekin, Eibar ebakuatzera behartuta. MARIN FUNTSA | KUTXA FOTOTEKA